

Tortura desagertzeko «borondate politikoa» falta dela diote hainbat elkartek

Arartekoaren ordezkariak dio beharrezkoa dela inkomunikazioa desagertzea

Eider Goenaga / Donostia

Torturaren prebentziorako eta desagertzeko neurriak aztertu zituzten gai horren inguruan lan egiten duten hainbat lagunek, atzo Donostian Torturen Prebentziorako Psikologo Elkargoak antolatutako mahai-inguruan. Guztiek nabarmendu zuten inkomunikazio egoeran gertatzen direla tortura kasu gehienak, eta tortura kasuak daudela onartzea eta desagertarazteko borondate politikoa ezinbestekotzat jo zituzten.

FERMIN BARCELO Arartekoaren ordezkaria, Amnesty Internationaleko Andres Krakenberger, AABetako Txema Matanzasek eta Torturen Aurkako Taldeko Itxaso Idoiaga medikuak aztertu zuten torturen gaia, bakoitzak bere alorrean ezagutzen duena kontuan hartuz.

Horrela, Barcelok Arartekoak zerbait egiteko aurkitzen dituen zailtasunak aipatu zituen. Dena dela, erakunde gisa proposatzen dituen hainbat neurri jarri zituen mahai gainean, lehenago «torturak daudela onartu» behar dela esanez: «Ezinbestekoa da torturak desagertzeko borondate politikoa, eta egon daitezkeelako susmo txikiena dagoenean deklarazio polizialak baliogabetzea, nahiz eta salaketarik ez egon».



PABLO S. QUIZA

Itxaso Idoiaga, Fermin Barcelo, Andres Krakenberger eta Txema Matanzas, atzoko prentsaurrekoan.

Bestetik, prebentziorako neurrien artean, «inkomunikazioa desagertzea, galdeketa abokatu eta epaileak egotea, deklaratzeari uko egiten dion atxilotua berehala epailearengana eramatea eta galdeketa grabatzea» aipatu zituen besteak beste; eta baita ekidin ezin diren kasuetan epaiketak ahalik eta azkarraren egitea ere: «Hamar urte pasatzen baitira batez beste tortura kasutik epaiketara bitartean, epaiketa egiten denean».

Torturengatik funtzionarioei ezartzen zaizkien zigoren inguruko kezka agertu

zuen, bestalde, Krakenbergerrek. Haren arabera, «tortura kasuetan jartzen diren zigorrak urriak eta sinbolikoak dira, eta zentzagarriak behar dute izan. Gainera, hainbat kasutan torturengatik zigortutako funtzionarioak karguz ere igo dituzte».

Txema Matanzas AABetako kide eta abokatuak ere torturak desagertzeko borondate politikoa eskatu zuen: «Baina nik ez nuke esango Madrilgo Gobernuak eta Jaurlaritzak torturak inpotentzia ikusten dituztenik, baimendu egiten dituztela baizik. Eta horrela ezinezkoa da torturak desa-

gerraraztea».

Ildo horretan, Entzutegi Nazionalak torturak baimentzeko egiten duen lana nabarmendu zuen, eta euskal herritarrek Euskal Herriko epaitegien esku egotea eskatu zuen, torturekiko «sentsibilitate» handiagoa izango dutelakoan.

Entzutegi Nazionalaren gaia landu zuen Itxaso Idoiagak ere, baina batez ere bere alorrean, alor medikuan. Esan zuenez, «gai politikoekin lotuta atxilotzen dituztenak dira tortura gehien pairatzen dituztenak, eta hor Entzutegi Nazionalak garrantzi berezia

erreakzioak

x Fermin Barcelo

(Arartekoaren ordezkaria): «Torturak egon daitezkeelako susmo txikiena dagoenean deklarazio polizialak baliogabetu behar dira, nahiz eta salaketarik ez egon»

x Andres Krakenberger

(AI): «Tortura kasuen zigorrak urriak eta sinbolikoak dira, eta zentzagarriak behar dute. Gainera, torturengatik zigortutako funtzionarioa karguz igo dute hainbat kasutan»

x Txema Matanzas

(AAB): «Nik ez nuke esango Madrilgo Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak torturak inpotentzia ikusten dituztenik, baimendu egiten dituztela baizik»

x Itxaso Idoiaga (TAT):

«Aztarnarik uzten ez duten torturetan gero eta adituagoak dira, baina forentseek ubelduei baino ez diete begiratzen, eta aurkitzean justifikatu egiten dituzte»

du». Bestetik, forentseen lana kritikatu zuen, frogak «azaletik» egiteagatik: «Izan ere, egun aztarnarik uzten ez dituzten torturetan gero eta adituagoak dira, baina medikuak ubelduei baino ez diete begiratzen, eta aurkitzean ere batzuetan justifikatu egiten dituzte».

barkatu

Ibarrako Gazte Festak
Katea eten gabe

Bihar

barkatu 2002

Zinema: Farrelly anaiak, umore zikinaren erregeak

Gazte Festak Ibarran, belaunaldi askoren lana

Athom Rhumba, zikinak eta zuzenak

Elkarrizketa: Gorka Otxoa

Egunkaria

...zure independentzia